

Itzulera

Bagdadeko Morroia

Ermuko Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal de Ermua

Nire gelako leihoa talaia baten antzekoa da,
ukaturiko mundua, zerua,
ikus ditzaket hemendik,
hantura, mina, gogogabetasuna
azter ditzaket nire logelatik.

Horrela pasatzen ditut
orduak, arratsaldeak, egunak,
galdutakoa eta amestutakoa imajinatuz.

Nire haurtzaroan luze egoten nintzen
leiho horretatik so eginez;
kanpoan zegoen mundua
arakatzeko zain.

Mapak marrazten nituen
existitzen ez ziren
bazter eta paradisuekin,
nire auzoko mugetatik haratago
zeuden lekuen
igurikimenekin.

Ihes egin nahi nuen,
nire errealitate ttipitik at,
ihesi,
airea hartzeko,
bizitzeko,
neure burua
aurkitzeko,
miazteko.

Baina orain ukazio garaiak heldu dira,
harresiak eraiki dituzte zelaiak zeuden lekuetan
hesgailuak jarri dizkigute gure begirada lanoetan
eta orain nire leihotik begira,
udaberriko haize gozoak ferekatzen nau
eta maiz kalatxorien kantuak entzuten ditut,
leiho-ertzean geratzen dira batzuetan baita ere
eta ni naiz euren askatasunaren lekuko.

Nahiko nuke txori izan
hustutako hiriaren gainetik hegan egiteko;
nahiko nuke txori izan
itsasora iristeko
eta ozeanoaren hoztasuna senti,
bakardadea eta askatasuna
nahasten direlarik.

Larritasuna, beldurra, ezjakintasuna
basoan piztutako sugar baten antzera
hedatzen dira jendartean.

Ez batugu
inolako ziurtasunik,
itxarobiderik;
baina nire ziurrik itsuenekin
esan diezazuket:

Udako egunak helduko direla,
itzuliko direla, berriz ere,
besarkadak, musuak, hitz gozoak...

Elkar ikusiko dugula berriro ere
eta eguzkipean etzango garela
ibaiertzean,
berriz ihesi joango garela
mendira, basora, hondartzara,
gustuko dugun txoko orora.

Ermuko Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal de Ermua

Berriro ere kantatuko dugula euripean
eta dantzan egingo dugu haizea bufaka dabilenean,
egingo ditugula atzeratutako bidaiak
kotxez, trenez, hegazkinez...

paisaia miretsiz,
sekula miretsi ez dugun moduan.

Itzuliko garela gure udatiar bazterretara,
oihan, herri, kalatxoetara...
gauetz bainatuko garela eta
egunez amestuko dugula
elkarrekin askatasunera itzultzen garen hemeen.

Ezin dut zin egin,
geroa ezin delako inoiz promestu,
hau bezalako gauzak aieru barik baitatoz,
baina nire talaia partikularretik
egun hobeak etorriko direla
idazten dizut,
inoiz jasoko ez duzun gutun honetan
garai hauek gogoan izango dituzten hitz hauexetan
gure etorkizunean gomutak bilakatuko diren
leihoko pentsamendu hauetan.